



**AGINDUA, LURRALDE
PLANGINTZA, ETXEBIZITZA
ETA GARRAIOETAKO
SAILBURUARENA, LURRALDE
PLANGINTZA, ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILAREN 2021-
2024 ALDIRAKO
DIRULAGUNTZEN PLAN
ESTRATEGIKOA ONARTZEN
DUENA.**

**ORDEN DEL CONSEJERO DE
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
VIVIENDA Y TRANSPORTES
POR LA QUE SE APRUEBA EL
PLAN ESTRATÉGICO DE
SUBVENCIONES DEL
DEPARTAMENTO DE
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
VIVIENDA Y TRANSPORTES
2021-2024.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan ezartzen denez, dirulaguntzen plan estrategiko bat eduki behar da, eta bertan identifikatu behar dira, sailaren dirulaguntzei dagokienez, haren aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, dirulaguntza horiek emateko behar den epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen badira.

Lege hori garatzeko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 12. artikulua dirulaguntzen plan estrategikoen edukia ezartzen du.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 1/2015 Zirkularrak, dirulaguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoak, plan horiek egiteko eta onartzeko zenbait neurri jasotzen ditu.

La Ley 38/ 2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones establece en su artículo 8.1 la obligatoriedad de contar con un Plan Estratégico de subvenciones en el que se identifiquen, en relación con las subvenciones del Departamento, los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su concesión, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

El artículo 12 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de dicha ley establece por su parte el contenido de los Planes estratégicos de subvenciones.

La Circular 1/2015 de la Oficina de Control Económico, sobre elaboración de los Planes estratégicos de subvenciones, recoge una serie de medidas orientadas a la elaboración y aprobación de los referidos planes.





Aipatutako xedapenak betez, plan hau sailaren eta hari atxikitako erakundeen politikak planifikatzeko tresna bat da, eta honako helburu hauek ditu: gure lurraldearen berrikuntza, berroneratzea eta egokitzapen jasangarria sustatzea, etxebizitza duina izateko eskubidea bermatuko duen etxebizitza sozialeko politika bat bultzatzea, eta mugikortasun jasangarria eta segurua bultzatzea. Helburu horiek, hain zuzen, XII. Legegintzaldiko “Euskadi martxan”. Gobernu Programan adierazitako konpromisoen barruan erabat lerrokatuta daude (2020-2024).

Plan hau egiteko, 2018ko eta 2019ko aurrekontu-ekitaldietako dirulaguntzen programen ebaluazioa hartu da abiapuntutzat. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8 artikulua araberan egin da. Aurrekontu-helburuen betetze-mailaren ebaluazioa ere hartu da abiapuntutzat. Era berean, Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050 onartzeko erreferentziatzat hartu zen Euskadi Hiritarraren egoeraren balorazioa hartu da abiapuntutzat. Aldi berean, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren betetze-mailaren ebaluazioa testuinguru gisa erabili da etxebizitzako dirulaguntzen politiken esparruan plangintza berria ezartzeko.

Bestalde, Gobernu Programan jasotako interes publikoak aztertu dira, sailaren eskumenekoak direnak, eta Planaren indarraldian horretarako erabilgarri dauden baliabideen aurreikuspenekin

En cumplimiento de las antedichas disposiciones, el presente Plan se configura como un instrumento de planificación de las políticas del departamento y sus entes adscritos teniendo por objeto el fomento de la renovación, la regeneración y la adaptación sostenible de nuestro territorio, una política de vivienda social que garantice el derecho a una vivienda digna, y el impulso una movilidad sostenible y segura, objetivos perfectamente alineados dentro de los compromisos expresados en el Programa de Gobierno de la XII Legislatura (2020-2024) “Euskadi en marcha”.

Para la elaboración del presente Plan se ha partido de la evaluación de los programas subvencionales de los ejercicios presupuestario 2018 y 2019, realizada de conformidad con el art. 49.8 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y de la evaluación del cumplimiento de objetivos presupuestarios. Se ha partido asimismo de la valoración de la situación de la Euskadi Urbana que se tomó como referencia para la aprobación de la Agenda Urbana de Euskadi, Bultzatu 2050. Al mismo tiempo, la evaluación del grado de cumplimiento del Plan Director de Vivienda 2018-2020 ha servido de contexto para el establecimiento de la nueva planificación en el ámbito de las políticas subvencionales de vivienda.

Por otro lado, se han examinado los intereses públicos recogidos en el Programa de Gobierno cuya consecución compete al departamento y se ha realizado un contraste con las previsiones de



alderatu da. Horrela, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handituko direla bermatzen da, baita gure jardun-eremuan gardentasuna indartuko dela ere.

Nolanahi ere, ohartarazi behar da Planak izaera programatikoa duela 2020-2024 Gobernu Programaren jardunen esparru orokorraren barruan, eta, beraz, haren edukia ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna hainbat dirulaguntza ildo abian jartzearen mende geratzen dela, besteak beste, dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta.

Era berean, argitu behar da Sailak parte hartzen duen sozietateei eta erakundeei egiten dizkien ekarpenak jasotzen dituela Planak. Izan ere, funts horiek berez dirulaguntzak ez badira ere, aurrekontu-ondorioetarako ematen dira, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen 38. artikulua arabera, eta maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen da.

Horiek horrela, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak

recursos disponibles para ello en el periodo de vigencia del Plan. De esta forma se garantiza un incremento en los niveles de eficacia y eficiencia, así como el fortalecimiento de la transparencia en nuestro ámbito de actuación.

Ha de advertirse, en todo caso, que el Plan tiene un carácter programático encuadrado dentro del marco general de las actuaciones del Programa de Gobierno 2020-2024, por lo que su contenido no crea derechos ni obligaciones, y su efectividad queda condicionada a la puesta en práctica de las diferentes líneas de subvención, atendiendo entre otros aspectos a las disponibilidades presupuestarias existentes.

Del mismo modo, conviene aclarar que el Plan recoge aquellas aportaciones que el Departamento realiza a sociedades y entes en los que participa pues, si bien estas entregas de fondos no son propiamente subvenciones, sí lo son a efectos presupuestarios de conformidad con el artículo 38 de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobadas por Decreto legislativo 1/2011, de 24 de mayo.

A la vista de lo expuesto, en ejercicio de las competencias atribuidas en el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de la Ley de Gobierno y el Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la

ematen dizkidaten eskumenak erabiliz, honako hau

Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Eranskin gisa jasotzen den "Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren 2021-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa" onartzea.

Bigarrena.- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta hari atxikitako erakundeek ematen dituzten dirulaguntzak Plan horretan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, eta dauden aurrekontu-baliabideen arabera emango dira.

Planean aurreikusi gabeko edozein dirulaguntza jarduera Planaren ardatzetako eta helburuetako batean txertatu beharko da, eta espedientean justifikatu beharko da ez dela planean sartu. Aurreikusitako dirulaguntza jarduera berria aipatutako ardatz eta helburuetara egokitzen ez bada, Plan hau aldatu beharko da aldez aurretik.

Hirugarrena.- Urte bakoitzeko lehen seihilekoan, dirulaguntzen programen ebaluazioaren esparruan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen 49.8 artikulua arabera, plana betetzen den ebaluatuko da. Egindako balorazioa oinarri gisa erabili beharko da dirulaguntzen plan estrategiko hau egokitzeko edo aldatzeko, edo egindako

RESUELVO:

Primero.- Aprobar el "Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes 2021-2024", que figura como Anexo.

Segundo.- La concesión de subvenciones por parte del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, y de sus entes adscritos deberá ajustarse a lo establecido en dicho Plan y estará condicionada en todo caso a las disponibilidades presupuestarias existentes.

Cualquier actuación subvencional no prevista en el Plan deberá incardinarse en alguno de los ejes y objetivos del mismo y deberá justificar en el expediente su no inclusión en el mismo. El no encaje de la nueva actuación subvencional prevista en los citados ejes y objetivos, exigirá necesariamente, con carácter previo, la modificación del presente Plan.

Tercero.- Dentro del primer semestre de cada año, en el marco de la evaluación de programas subvencionales que se realiza de conformidad con el artículo 49.8 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, se procederá a evaluar el cumplimiento del Plan. La valoración realizada deberá servir de base en su caso para la



aurrekontu-aurreikuspenetan
doikuntzak egiteko, horiek
garrantzitsuak direnean.

adaptación o modificación del
presente Plan estratégico de
subvenciones o para la realización
de reajustes en las previsiones
presupuestarias realizadas,
cuando éstas fueran relevantes.

Laugarrena.- Agindu hau argitara
dadila agintzea, dagozkion
bitarteko ofizialen bidez eta,
nolanahi ere, Lurralde Plangintza,
Etxebizitza eta Garraio Sailari
dagokion espazioan txertatuz
www.euskadi.eus webgunean.

Cuarto.- Ordenar que se dé
publicidad a esta Orden a través
de los medios oficiales que
procedan y, en todo caso,
mediante su inserción en el
espacio que corresponde al
Departamento de Planificación
Territorial, Vivienda y Transportes
en la web www.euskadi.eus.

Ignacio María Arriola López

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUA
CONSEJERO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y
TRANSPORTES

Elektronikoki sinatua
Fdo. electrónicamente

ERANSKINA

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN 2021-2024 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

1.- Planaren justifikazioa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan ezartzen denez, dirulaguntzen plan estrategiko bat eduki behar da, eta bertan identifikatu behar dira, sailaren dirulaguntzei dagokienez, haren aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, dirulaguntza horiek emateko behar den epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen badira.

Agindu hori betetzeko sailek egin beharreko jarduera bideratzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 1/2015 Zirkularra onartu zuen, dirulaguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa. Zirkular horretan, plan horiek egiteko eta onartzeko zenbait neurri jasotzen dira.

Bestalde, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra garatzeko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 12. artikulua dirulaguntzen plan estrategikoen edukia ezartzen du.

Plan honen aurrekari gisa onartu ziren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko martxoaren 14ko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren 2018-2020 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko otsailaren 19ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko berriak COVID-19 birusak eragindako pandemiaren ondorioz sortutako krisi ekonomikoa eta enplegu-krisia islatzen ditu bereziki. Pandemiari aurre egiteko ahalegin gehigarria eskatzeaz gain, ekonomikoki erresilienteagoa, sozialki bidezkoagoa eta ingurumenaren aldetik jasangarriagoa den gizarte baterantz eboluzionatzeko aukera izan daiteke eta izan behar du.

2.- Aplikazio-eremua.

Planak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren dirulaguntza guztiak jasotzen ditu.

Planaren denbora-tartea XII. Legegintzaldia amaitzeko geratzen diren 4 aurrekontu-ekitaldiena da. Denbora hori ez da aukeratu Sailari dagozkion helburuak osorik betetzeko egokiena dela uste delako, baizik eta gobernu-sistema demokratikoaren mekanikak berak lau urteko legegintza-aldiak ezartzen dituelako.

3.- Planaren edukia

Plana hiru ardatz estrategikotan egituratuta dago. Ardatz horiek Sailaren dokumentu programatiko sektorialetan definitutako helburu eta ardatz estrategikoetatik eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari dagozkion konpromisoetatik atera dira, eta XII. Legegintzaldiko (2020-2024) "Euskadi martxan" Gobernu Programan identifikatu dira.

Ondoren, dirulaguntzen programak gauzatzeko aurreikusitako kostuen datu orokorrak identifikatzen ditu laborpen gisa, sailaren egitura osatzen duten antolaketa-unitateekin lotuta.

Azkenik, planak fitxa bat jasotzen du dirulaguntzen programetarako. Fitxa horretan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak proposatutako ereduari jarraituz, beste eduki batzuk sartu dira, Diru-laguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren arabera. Horrela, programei dagokienez, honako alderdi hauek identifikatzen dira: helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak, eraginpeko eskumen-arloak, lotutako sektore-planak, xede diren sektoreak, dirulaguntzak emateko prozedura, Sailaren aurrekontu-konpromisoen aurreikuspenak eta beste finantzaketa-iturri batzuk egotea.

Fitxa horiek egitean, kontuan hartu da, halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren 2018-2021 aldirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana bete dela. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planeko Gobernantzaren ardatzeko BG12 "kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak sartzea" neurriarekin bat dator, gai honi dagokionez. Gobernu Kontseiluaren 2018ko ekainaren 19ko Erabakiaren bidez onartu zen. Ildo horretatik, legez eska daitezkeen berdintasun-klausulak baino harago doazen dirulaguntzen programek Berdintasun Planari buruzko erreferentzia txertatu dute dagozkien fitxetan, ekimenak zerikusia duen plan sektorialen zerrendan.

4.- Ardatz estrategikoak eta helburu estrategikoak identifikatzea

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bat dator Sailaren dokumentu programatiko sektorialetan jasotako konpromisoekin, batez ere honako hauekin: "Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050; 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana; EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana; Irisgarritasun Unibertsalaren EAEko estrategia; 2030erako Euskadiko Garraio Jasangarriaren Gida Plana; eta XII. Legegintzaldiko "Euskadi martxan" Gobernu Programan jasotako konpromisoak. Sailaren jarduera-eremuak horiei erantzuten die, baita beste plan estrategiko eta sektorial batzuek eta beste dokumentu programatiko batzuek ere.

Premisa horiekin, Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa ardatz estrategiko hauetan egituratu da:

- 1 Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.
- 2 Alokairu eskuragarria sustatzea.
- 3 Dauden bizitegi-eraikinen parkea balorizatzea.
- 4 Etxebizitzan kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea.
- 5 COVID-19 kontrako neurriak
- 6 Mugikortasun jasangarria eta segurua bultzatzea

4.1. Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.

XII. Legegintzaldiko (2020-2024) Euskadi Martxan Gobernu Programan jasotako lehen ardatz estrategikoaren barruan, "*Enplegua eta ekonomiaren suspertzea*", agenda eta hiri-berroneratzea aipatzen dira Eusko Jaurlaritzaren tresna gisa pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko eta, aldi berean, erronka eta premia berrietara egokitzeko.

Aurreko legegintzaldian Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050 onartu zen, sailburuaren 2019ko azaroaren 20ko Aginduaren bidez. Agindu hori Nazio Batuen Hiri Agenda Berrian oinarrituta egin zen, eta Garapen Jasangarriko Helburuen 11. zenbakiarekin lerrotuta dago. Haren helburua hiri inklusibo, seguru, adimendun, erresiliente eta jasangarriak lortzea da, inor atzean utzi gabe eta lekuri utzi gabe.

Esparru horretan, Gobernu Programak honako programa-konpromiso hauek biltzen ditu: 36. konpromisoa, "Bultzatu 2050" Euskadiko Hiri Agenda hedatu eta ezartzea, eta 39. konpromisoa, hiri-birgaitzea eta -berroneratzea sustatzea.

Ardatz estrategiko horretan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren lehentasunak identifikatzen dira, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzaren dirulaguntzen politikak helburu estrategiko hauek kontuan hartuta:

4.1.1. Lurralde-plangintza bultzatzea, lurralde kohesionatu eta inklusibo baten oinarriak ezartzeko

Euskadi sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria izan dadin eta izaten jarrai dezan, helburu horri lotutako sailaren dirulaguntza politikak lurraldearen eta paisaiaren arloko prestakuntza eta ikerketa sustatuko ditu, baita genero-ikuspegia hiri-garapenaren eremuan txertatzea ere.

4.1.2. Gobernantza garatzea eta Hiri Agenda 2050 ezartzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora hedatuz

Esku-hartze Integraleko Programarekin bat etorriz, auzo kalteberetan esku hartzen jarraituko da. Esku-hartze horiek ondorengo ekintza-plan bat hedatzeko pilotu gisa balioko dute. Era berean, "Hiri Habitata" ZTBPrek berrikuntza-funts osagarria eratzea aurreikusten da.

Gainera, I+G+b prozesuak bultzatuko dira hiri jasangarrien esparruan.

4.1.3. GeoEuskadi EAEko lurraldeko informazio geografikoaren sistema gisa sendotzea

Tokiko erakundeei udal-informazio geografikoaren kalitatea hobetzen laguntzeko programekin jarraituko da, eta informazio geografikoaren arloko ikerketak eta beste proiektu batzuk sustatuko dira.

4.2. Alokairu eskuragarria sustatzea

2020-2024 aldirako "Euskadi martxan" Gobernu Programaren 37. eta 38. konpromisoak etxebizitzaren arloari buruzkoak dira eskusiboki, eta konpromiso horiek Etxebizitzaren aldeko 15 urtera begirako Itun Sozial batean, legegintzaldiko Etxebizitzaren Gida Plan berrian eta gazteentzako etxebizitza eskuratzeko neurrietan gauzatuko direla zehazten dute, hori guztia aipatutako planaren hirugarren printzipio informatzailea garatuz, "Inor atzean ez uztea", alegia.

Horrek esan nahi du alokairuaren sustapenaren aldeko apustua indartu behar dela, ekimen publiko eta pribatukoa, prezio mugatuetan, modalitate berriak sartuz, hala nola cohousing edo etxebizitza kolaboratiboak, "Build to rent" eta alokairu eskuragarria.

Era berean, aurrera egin behar da etxebizitzarako eskubide subjektiboaren aitortpenean, eta nabarmentzekoa da legegintzaldi honetan etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketa bere gain hartu izana. Horrek esan nahi du, alokairurako gainerako prestazioekin batera, milaka pertsonak eta familiak prestazio bat izango dutela alokairu-errentaren ordainketari aurre egiteko.

Alokairu-politiken eraginkortasunak eta efizientziak, behar handienak dituzten kolektiboen premiei erantzuteko, babes publikoko etxebizitza bat eskuratzea erraztu behar du, edo, bestela, alokairua ordaintzeko laguntzak ematea.

Ardatz estrategiko horretan, Etxebizitza Sailburuordetzak honako helburu estrategiko hauek hedatzen ditu, dirulaguntzen hainbat ildo eta programatan garatuta:

- 4.2.1. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzea
- 4.2.2. Alokairu sozialeko etxebizitzaren eskaintza eskuragarria sustatzea
- 4.2.3. Zuzkidura-bizitokiaren eskaintza sustatzea
- 4.2.4. Despopulazioak eragindako eremuetan alokairu eskuragarriaren eskaintza sustatzea
- 4.2.5. Erabilera-lagapeneko etxebizitzaren eskaintza sustatzea
- 4.2.6. Prezio eskuragarrietan alokatzeko eskaintza sustatzea
- 4.2.7. Gazteen emantzipazioa erraztea
- 4.2.8. Udalaren lurzoru-ondareak eratzea

4.3. Lehendik dauden bizitegi-eraikinen parkea balioztatzea.

Halaber, etxebizitza-arloari estu lotuta dago aipatutako Gobernu Planaren 39. konpromisoa: etxebizitzaren birgaitzea eta berrikuntza sustatzea, irisgarritasuna, eraginkortasun energetikoa eta eraikuntza jasagarria hobetuz.

Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko programa berriek irisgarritasuneko eta eraginkortasun energetikoko jarduketak eraikinen eta etxebizitzaren segurtasunarekin eta etxebizitzaren erosotasun- eta bizigarritasun-maila handiagoarekin integratu nahi dituzte.

Birgaitze-politikan jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa lortzea eta Europako Next Generation funtsek 2021-2024 aldian inbertsio-osagai horretan irekiko dituzten finantzaketa-aukera berriak optimizatzea arrakastaz garatu beharreko estrategiak dira.

Ardatz estrategiko horretan, Etxebizitza Sailburuordetzak honako helburu estrategiko hauek hedatzen ditu, dirulaguntzen hainbat ildo eta programatan garatuta:

4.3.1. Birgaitze-politika integrala, efizientea eta jasangarria ezartzea

4.3.2. Irisgarritasuna erraztea

4.4. Etxebizitzaren kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea.

Ardatz honen helburuak honako hauek dira: berrikuntza eta ikerketa eraikuntzaren eta arkitekturaren eremuan, eraikuntzaren kalitatea sustatzea, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzea, jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra hobetzea, eta arkitektura zabaltzea eta sustatzea. Ardatz hori Gobernu Planeko 39. konpromisoarekin lerrokatuta dago.

Ardatz estrategiko horretan, Etxebizitza Sailburuordetzak helburu estrategiko bakarra du, dirulaguntzen hiru ildo eta programatan garatua:

4.4.1. Arkitekturan eta eraikuntzan kalitatea eta berrikuntza sustatzea.

4.5. COVID-19 kontrako neurriak

Etxebizitzaren arloan pandemiak eragindako pertsona kalteberen erresilientzia eta susperraldi sozial eta ekonomikoa errazten duten COVID-19ren aurkako neurriak definitzea ardatz estrategikotzat hartuta, 2020an ezohiko eta premiazko izaerarekin garatu zen, eta 2021erako ohiko etxebizitzaren errentarientzako alokairurako dirulaguntzen lerro eta programa bat ezarri da, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialaren ondoren, ordainketa partzial edo osoari aurre egiteko arazoak dituztenentzat.

4.5.1. Etxebizitzaren alokairu librearen ordainketa erraztea

4.6. Mugikortasun jasangarria eta segurua sustatzea

Arlo horretako garraio-politika eta dirulaguntzen politika pertsonen eta ondasunen mugikortasun-beharrei erantzutera bideratuta daude, eta ahalik eta modurik jasangarrienean eta ahalik eta errentagarritasun sozial, ingurumeneko eta ekonomiko handienarekin.

Esparru horretan, garraio-azpiegiturek garraio-politika garatzen den ingurunea osatzen dute. Politika horren lehentasuna garraiobide jasangarrienak sustatzea eta Europarekiko trenbide-lotura garatzea da, korridore atlantikoaren bitartez.

XII. Legegintzaldiko (2020-2024) "Euskadi martxan" Gobernu Programak, besteak beste, ardatz honekin lotutako konpromiso hauek jasotzen ditu: mugikortasun jasangarria (32. konpromisoa), Euskadi Europako korridore atlantikoko "funtsezko kate-maila" (33. konpromisoa) eta trenbideko inbertsioei lehentasuna ematea (34. konpromisoa).

Ardatz estrategiko honetan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren lehentasunak identifikatzen dira, eta Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzaren dirulaguntzen politikak helburu estrategiko hauek ditu helburu:

4.6.1. Salgaien eta bidaiarien garraioaren erabileran eraginkortasuna eta efizientzia sustatzea, azpiegituren segurtasuna, irisgarritasuna eta berrikuntza bermatuz.

Helburu horren helburua da EAE barruko mugikortasun kolektiboa hobetzea, herritarren mugikortasunerako sarbidean berdintasuna sustatuz eta garraio elektriko eta trenbideko garraio jasangarriago eta seguruago baterako irisgarritasuna sustatuz.

4.6.2. Sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria den lurraldea bultzatzea, mugikortasun jasangarriko politikak garatuz:

Helburu estrategiko hori garatzeko, honako helburu operatibo hauek ezarriko dira: garraio-sektoreari eta EAEko aireportu-sistemari laguntzea, eta plataforma logistiko intermodalen garapena bultzatzea, horiek baitira Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzaren dirulaguntza politikaren jarduera-ildo nagusiak.

5. – Dirulaguntzen programen laburpena:

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.

Helburu estrategikoa: **1. Lurralde-plangintza bultzatzea, lurralde kohesionatu eta inklusibo baten oinarriak ezartzeko**

Organo kudeatzailea: **Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Udalentzako dirulaguntzak, paisaiaren arloko ekintza-planak egin ditzaten	1.200.000
Udalentzako dirulaguntzak, udal-plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko	800.000
GUZTIRA	2.000.000 €

Helburu estrategikoa: **2. Gobernantza garatzea eta Hiri Agenda - Bultzatu 2050 ezartzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora hedatuz**

Organo kudeatzailea: **Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
NBE Habitat eta sektore publiko eta pribatuko beste erakunde batzuentzako dirulaguntzak, gobernantzarako, hiri-agenda ezartzeko, hiri-behatoki bat garatzeko edo tokiko edo lurraldeko hiri-agendak garatzeko.	1.400.000
Dirulaguntzak ematea estatuko edo nazioarteko hainbat unibertsitatetako ikerketa-taldeei eta erakunde publiko eta pribatuei, hiri-inguruneetako hiri-berroneratzearekin, paisaiarekin edo kulturarekin lotuta	3.750.000
Estatuko edo nazioarteko hainbat unibertsitatetako ikerketa-taldeentzako eta erakunde publiko eta pribatuentzako dirulaguntzak, ZTBP 2030en "hiri jasangarriak" aukera daitezkeen lurraldeari dagokionez.	9.432.500
Hiri-berroneratze integralerako dirulaguntzak udalei eta erakunde publiko eta pribatuei.	51.040.000
Opengela programaren erakunde kudeatzailearentzako dirulaguntzak, programa hori kudeatzeko, sostengatzeko eta osorik berroneratzeko proiektuak gauzatzeko laguntzak emateko.	5.650.000
GUZTIRA	71.272.500 €

Helburu estrategikoa: **3. GeoEuskadi EAEko geografia-informazioko lurralde-sistema gisa sendotzea**

Organo kudeatzailea: **Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Udalentzako dirulaguntzak, udal informazio geografikoa hobetzeko eta Geoeuskadin integratzeko.	800.000
GUZTIRA	800.000€

Ardatz estrategikoa: Alokairu eskuragarria sustatzea

Helburu estrategikoa: **1. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Alokairu librea ordaintzeko prestazioak, etxebizitzarako eskubide subjektiboaren ordezkotako exekuzioan (EPE+ EPO 2022tik aurrera)	257.000.000
GUZTIRA	257.000.000 €

Helburu estrategikoa: **2. Eskaintza soziala eskuragarria sustatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Errentamendu babestuan lagatzeko etxebizitzak sustatzeko eta/edo erosteko laguntzak (ALOKAIRU programa berria barne)	20.000.000
GUZTIRA	20.000.000 €

Helburu estrategikoa: **3. zuzkidura-bizitokiaren eskaintza sustatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Zuzkidura-bizitokiak sustatzeko laguntzak	14.000.000
GUZTIRA	14.000.000 €

Helburu estrategikoa: **4. Alokairu-eskaintza eskuragarria sustatzea despopulazioak eragindako eremuetan**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Landa-inguruneetan alokairu babestua sustatzeko eta despopulazioaren aurkako laguntzak	8.000.000
GUZTIRA	8.000.000 €

Helburu estrategikoa: **5. Erabilera-lagapeneko etxebizitzaren eskaintza sustatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Cohousingerako edo etxebizitza kolaboratiboetarako laguntzak	18.000.000
GUZTIRA	18.000.000 €

Helburu estrategikoa: **6. Prezio eskuragarrietan alokatzeko eskaintza sustatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Alokairu eskuragarriko laguntzak	18.000.000
GUZTIRA	18.000.000 €

Helburu estrategikoa: **7. Gazteen emantzipazioa erraztea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Gaztelagun programa	50.000.000
GUZTIRA	50.000.000 €

Helburu estrategikoa: **8. Udalaren lurzoru-ondareak eratzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Lurzorua eskuratzeko eta urbanizatzeko eragiketetarako laguntzak, edozein administrazio publikoren mendeko lurzoru-ondareak eratzeko	200.000
GUZTIRA	200.000 €

Ardatz estrategikoa: Lehendik dauden bizitegi-eraikinen parkea balorizatzea

Helburu estrategikoa: **1. Birgaitze integraleko politika bat ezartzea, efizientea eta jasangarria.**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
1. lerroa: Obra partikularretarako finantza-neurriak	10.000.000
2. lerroa: Obra komunitarioetarako finantza-neurriak	82.000.000
3. ildoak: Birgaitze integral eta efizienteko obra komunitarioetarako finantza-neurriak	54.000.000
GUZTIRA	146.000.000 €

Helburu estrategikoa: **2. Irisgarritasuna erraztea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Espazio publikoetan irisgarritasun-plan eta -obretarako finantza-neurriak	20.000.000
GUZTIRA	20.000.000 €

Ardatz estrategikoa: Etxebizitzan kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea

Helburu estrategikoa: **1. Arkitekturan eta eraikuntzan kalitatea eta berrikuntza sustatzea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Sailsa
ERAIKAL laguntza-programa	4.500.000
Kalitatea hobetzeko eta eraikuntzan eta arkitekturan berrikuntza sustatzeko dirulaguntza izendunak.	3.500.000
Hirigintza-diseinua eta arkitektura garaikidea sustatzeko laguntzak	500.000
GUZTIRA	8.500.000 €

Ardatz estrategikoa: COVID-19ren aurkako neurriak etxebizitzaren arloan

Helburu estrategikoa: **1. Etxebizitzaren alokairu librearen ordainketa erraztea**

Organo kudeatzailea: **Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Sailsa
Alokairu libreko laguntzak COVID-19	1.000.000
GUZTIRA	1.000.000 €

Ardatz estrategikoa: mugikortasun jasangarria eta segurua bultzatzea

Helburu estrategikoa: **1. Salgaien eta bidaiarien garraioaren erabileran eraginkortasuna eta efizientzia sustatzea, azpiegituren segurtasuna, irisgarritasuna eta berrikuntza bermatuz.**

Organo kudeatzailea: **Garraio Azpiegituren Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Sailsa
Bizkaiko Garraio Partzuergoarentzako dirulaguntza, Bilboko metropoli-trenbidea finantzatzeko	166.500.000 €
Hiri-garraioan autobus elektrikoko sistemak ezartzeko dirulaguntzak	17.345.000 €
GUZTIRA	183.845.000 €

Helburu estrategikoa: **2. Sozialki kohesionatua, orekatua eta jasangarria den lurraldea bultzatzea, mugikortasun jasangarriko politikak garatuz**

Organo kudeatzailea: **Garraio Plangintzaren Zuzendaritza**

Dirulaguntza lerroa	Ekarpena Saila
Elkartegintzarako laguntzen deialdiak	400.000
Jarduera uzteko laguntzen deialdiak	1.180.000
Teknologia berriei eta segurtasunari laguntzeko deialdiak	452.000
Garraioko partzuergoak eta agintariak	7.921.652
Logistikako eta mugikortasuneko beste erakunde batzuk	1.128.000
Via, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SArI dirulaguntza ematea bidaiari-eragiketa erregularretarako (2021-2024)	2.990.000
Aireportuak sustatzeko sozietateak	800.000
Portuko agintariak	665.000
Plataforma logistikoak	1.356.000
GUZTIRA	16.892.652 €

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.				
Helburu estrategikoa: 1. Lurralde-plangintza bultzatzea, lurralde kohesionatu eta inklusibo baten oinarriak ezartzeko				
Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza				
Aurrekontu-programa: Lurralde-antolamendua (4313)				
Dirulaguntzen lerroa: udalei dirulaguntzak ematea, paisaiaren arloko ekintza-planak egin ditzaten				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldian)				
<p><u>Helburua</u>: Paisaiaren arloko ekintza-planak gauzatzea (paisaia hirigintzan integratzea)</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa</u>: Udalek paisaia-planak egin ditzaten lortzea.</p> <p><u>Adierazleak/magnitudeak</u>:</p> <p style="margin-left: 20px;">Aurreikusitako jarduketan kopurua: 40</p> <p style="margin-left: 20px;">Biztanle onuradunen kopurua: 200.000</p>				
Eraginpeko eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
Lurralde Antolamendua, Hirigintza, Ingurumena, Kultura eta Nekazaritza, batez ere				
Laguntzen xede diren sektorea edo sektoreak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ EAEko udalak ✓ Arabako kontzejuak 				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
		Urte bakoitzean eman beharreko zenbatekoak, guztira		
VII. Kapituluak	2021	2022	2023	2024
	300.000	300.000	300.000	300.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Emateko prozedura: Lehiarik gabeko konkurrentzia				

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.				
Helburu estrategikoa: 1. Lurralde-plangintza bultzatzea, lurralde kohesionatu eta inklusibo baten oinarriak ezartzeko				
Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza				
Aurrekontu-programa: Lurralde-antolamendua (4313)				
Dirulaguntzen lerroa: Dirulaguntzak udalentsat, udal plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldian)				
<p><u>Helburua</u>: Hirigintza eta genero-ikuspegia</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa</u>: Udaletako hirigintza-tresnak egiten parte hartzeko prozesuek zein tresnek berek genero-ikuspegia kontuan har dezaten lortzea.</p> <p><u>Adierazleak/magnitudeak</u>: Genero-ikuspegia txertatzeari buruz egindako analisi-dokumentuen kopurua: 40</p>				
Eraginpeko eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
<p>Eraginpeko eskumen-arloak: Lurralde-plangintza eta hirigintza, emakumeen eta gizonen berdintasuna.</p> <p>Lotutako plan sektorialak: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.</p>				
Laguntzen xede d(ir)en sektorea(k):				
<input checked="" type="checkbox"/> EAEko udalak				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
		Urte bakoitzean eman beharreko zenbatekoak, guztira		
IV. Kapituluak	2021	2022	2023	2024
	200.000	200.000	200.000	200.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Ez				
Emateko prozedura: Lehiarik gabeko konkurrentzia				

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.
Helburu estrategikoa: 2. Gobernantza garatzea eta Bultzatu 2050 Hiri Agenda ezartzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora hedatuz
Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza
Aurrekontu Programa: Berrikuntza funtsa (5414)
Dirulaguntza ildoak: NBE Habitat eta sektore publiko eta pribatuko beste erakunde batzuentzako dirulaguntzak gobernantzarako, hiri-agenda ezartzeko, hiri-behatoki bat garatzeko edo tokiko edo lurraldeko hiri-agendak garatzeko.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldian)
<p><u>Helburua</u>: Euskadiko Hiri Agenda inplementatzea 2030 Agendaren 11. GJH garatzeko, gobernantza-eredua eta haren ebaluazioa eta jarraipena ahalbidetuko duen hiri-behatoki bat garatuz.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa</u>: Koherentzia eta koordinazioa ematea Euskadiko hiri- eta landa-inguruneetan eragina duten politika publiko guztiei, Bultzatu 2050 Hiri Agendaren esparruan, kanpoan nazioarteko erreferentzia gisa proiektatuz. Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren ezarpena ahalbidetzea, EAEko lurralde eta udalerrietan.</p> <p><u>Adierazleak/magnitudeak</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Hiri Agendaren ezarpenaren jarraipen- eta ebaluazio-txostenak: 4 ✓ Nazioko eta nazioarteko foroetan parte hartzea: 4 ✓ Beren Hiri Agenda garatzen duten lurraldeak: 2 ✓ Beren Hiri Agenda garatzen duten udalerriak: 6
Eraginpeko eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko Hiri Agenda BULTZATU 2050 (GJH 11) ✓ Euskadi 2030 Agenda. ✓ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2030 (ZTBP 2030).

Laguntzen xede diren sektorea edo sektoreak:

- ✓ Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, autonomikoak, estatukoak edo nazioartekoak.
- ✓ Foru-aldundiak
- ✓ EAEko udalak.

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak

IV. eta VII. Kapituluak	Urte bakoitzean eman beharreko zenbatekoak, guztira			
	2021	2022	2023	2024
	200.000	400.000	400.000	400.000

I identifikatutako beste ekarpen batzuk: Europako funtsak

Emateko prozedura: Norgehiagoka, lehiarik gabeko konkurrentzia, dirulaguntza izenduna eta hitzarmena

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.				
Helburu estrategikoa: 2. Gobernantza garatzea eta Bultzatu 2050 Hiri Agenda ezartzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora hedatuz				
Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza				
Aurrekontu Programa: Berrikuntza funtsa (5414)				
Dirulaguntzen lerroa: Estatuko edo nazioarteko hainbat unibertsitateko ikerketa-taldeentzako eta erakunde publiko eta pribatuentzako dirulaguntzak, hiri-inguruneetako hiri-berroneratzearekin, paisaiarekin edo kulturarekin lotuta				
Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldian)				
<p><u>Helburua</u>: Hiri-berroneratze integraleko prozesuei buruzko ezagutzan aurrera egitea.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa</u>: Euskadin hiria birgaitzeko eta berroneratzeko estrategia integral bat egiten eta garatzen laguntzea, nazioartean erreferentea izango dena, arlo horretan ikerketa, garapen eta berrikuntzarako zentro bat sortuz.</p> <p><u>Adierazleak/magnitudeak</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Plan Estrategikoaren formulazioa ✓ Hiria berroneratzeko I+G+b arloari buruzko lantaldea eratzea ✓ Ezagutzak trukatzeko egindako jardunaldien kopurua: 4 ✓ Egindako txostenen/ikerketa-lanen kopurua: 4 				
Eraginpeko eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:				
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda. ✓ Hiria Birgaitzeko eta Berroneratzeko Plan Estrategikoa. ✓ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030. 				
Laguntzen xede diren sektorea edo sektoreak: Autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko unibertsitateetako eta erakunde pribatuetako edo sektore publikoko ikerketa-taldeak.				
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
IV. eta VII. Kapitulua	Urte bakoitzean eman beharreko zenbatekoak, guztira			
	2021	2022	2023	2024
	1.255.000	790.000	565.000	565.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Europako funtsak				
Emateko prozedura: Norgehiagoka, lehiarik gabeko konkurrentzia, dirulaguntza izenduna eta hitzarmena.				

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.

Helburu estrategikoa: 2. Gobernantza garatzea eta Bultzatu 2050 Hiri Agenda ezartzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora hedatuz

Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza

Aurrekontu Programa: Berrikuntza funtsa (5414)

Dirulaguntzen lerroa: Estatuko edo nazioarteko hainbat unibertsitatetako ikerketa-taldeentzako eta erakunde publiko eta pribatuentzako dirulaguntzak, ZTBP 2030eko "hiri jasangarrien" aukera-lurraldeari dagokionez.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldian)

Helburua: I+G+b gaitasunak garatzea Euskadiko hiri-irtenbideekin lotutako sektore berrian, 2030eko ZTBPre "hiri Jasangarrien Aukera Lurraldea" izeneko taldearen barruan.

Lortu nahi den ondorioa: Hiri-irtenbideekin lotutako sektore berriaren I+G+b arloko gaitasunak garatzen eta hobetzen laguntzea, Euskadiko Hiri Agendan (BULTZATU 2050) identifikatutako hiru trantsizioak azpimarratuz: teknologiko-digitala, energia- eta ingurumen-arlokoa eta demografiko-soziosanitarioa.

Energia-komunitateak ezartzeko eredu berriak garatzea (Nearly Zero Energy Neighbourhood), auzoen berrurbanizazioan birnaturalizazio-soluzioak txertatzea (Climate Neutral Neighbourhood), mugikortasun elektrikorako soluzioak, eraikinaren azalera handitzea, berriztagarrien integrazioa, sistema aktiboak, finantza-tresnak, eta abar.

Adierazleak/magnitudeak:

- ✓ Sortutako energia-komunitateen kopurua: 4
- ✓ Azalera handitzeko jarduketak dituzten ha proiektuen kopurua: 4
- ✓ Finantza-tresnarekin garatutako auzoetako eragiketa kopurua: 10

Eraginpeko eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:

- ✓ Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050
- ✓ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030
- ✓ Euskadiko Energia Estrategia 2030

Laguntzen xede diren sektorea edo sektoreak: Autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko unibertsitateetako ikerketa-taldeak, udalak eta erakunde pribatuak edo sektore publikoa.

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak

VII. Kapituluak	Urte bakoitzean eman beharreko zenbatekoak, guztira			
	2021	2022	2023	2024
	4.325.000	3.000.000	3.000.000	3.000.000

Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Europako funtsak

Emateko prozedura: Norgehiagoka, lehiarik gabeko konkurrentzia, dirulaguntza izenduna eta hitzarmena.

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.

Helburu estrategikoa: 2. Gobernantza garatzea eta Bultzatu 2050 Hiri Agenda ezartzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora hedatuz

Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza

Aurrekontu-programa: Lurralde-antolamendua (4313) eta berrikuntza-funtsa (5414)

Dirulaguntzen lerroa: Hiri-berroneratze integralerako dirulaguntzak udalei eta erakunde publiko eta pribatuei.

Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldian)

Helburua: Euskadiko zentsu-sekzioen kalteberatasun-egoera dakarten adierazleak murriztea.

Lortu nahi den ondorioa: Hiri-inguruneetan esku hartzeko eredu bat garatzea, eremu horien kalteberatasun-baldintzak murriztea eta lehengoratzeko ahalbidetuko duena; horretarako, hobekuntzak egingo dira eraikitako parkean eta hiri-ingurunean, eta irtenbide sozialak, prestakuntzakoak, enpleguak eta teknologia, zerbitzu, produktu eta sistema berriak txertatuko dira, auzo kohesionatuagoak, klimatikoki neutroagoak, irisgarriagoak eta eremuaren zerbitzurako zuzkidura nahikoekin lortu ahal izateko.

Energia-komunitateak ezar daitezkeen hiri-inguruneak (Nearly Zero Energy Neighbourhood), auzoen berrurbanizazioan birnaturalizazio-soluzioak txertatzea (Climate Neutral Neighbourhood), mugikortasun elektrikoko soluzioak, eraikinaren azalera handitzea, berriztagarrien integrazioa, sistema aktiboak, finantza-tresnak, eta abar.

Eremuko biztanleriaren baldintzak hobetzearekin lotutako ekimenak integratzea, hurbiltasun-bulegoak, enplegurako prestakuntzarako lankidetzak, etab.

Adierazleak/magnitudeak:

- ✓ Auzo edo hiri-multzo mailako esku-hartze proiektuen kopurua: 10
- ✓ Auzoetako birnaturalizazio-proiektuen kopurua: 8
- ✓ Drainatze jasangarriko sistemak txertatzeko proiektuen kopurua: 4

Eraginpeko eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:					
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050 ✓ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030 ✓ Euskadiko Energia Estrategia 2030 ✓ KLIMA 2030 ✓ Euskadiko susperraldi ekonomikorako eta enplegurako programa, BERPIZTU 2020-2024 					
Laguntzen xede diren sektorea edo sektoreak: Udalak, enpresak, jabe-erkidegoak, taldeak, elkarteak eta erakunde publiko eta pribatuak, hiri-berroneratze integraleko prozesuetan gizarte- edo kultura-ekimenetan lagundu dezaketenak, etab.					
Sailen aurrekontu-aurreikuspenak					
VII. Kapituluak		Urte bakoitzean eman beharreko zenbatekoak, guztira			
		2021	2022	2023	2024
		12.760.000	12.760.000	12.760.000	12.760.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Europako funtsak					
Emateko prozedura: Norgehiagoka, lehiarik gabeko konkurrentzia, dirulaguntza izenduna eta hitzarmena					

<p>Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.</p> <p>Helburu estrategikoa: 2. Gobernantza garatzea eta Bultzatu 2050 Hiri Agenda ezartzea, hiri-berroneratzea EAEko lurralde osora hedatuz</p>
<p>Organoa: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza</p>
<p>Aurrekontu Programa: Berrikuntza funtsa (5414)</p>
<p>Dirulaguntzen lerroa: Opengela programa kudeatzen duen erakundearentzako dirulaguntzak, programa hori kudeatzeko, sostengatzeko eta osorik berroneratzeko proiektuak gauzatzeko laguntzak emateko.</p>

<p>Helburuak, lortu nahi diren ondorioak eta adierazleak (Planaren indarraldian)</p>
<p><u>Helburua</u>: Opengela programaren erakunde kudeatzailearen eraketan parte hartzea, HIROSS4all Europako proiektuarekin garatutako hiri-berroneratzea Euskadi osoan kudeatzeko eredu ezartzeko, eta, eratu ondoren, bere helburuak betetzeko ekarpena egitea.</p> <p><u>Lortu nahi den ondorioa</u>: Kalteberatasun-baldintzak lehengoratzeko politikak benetan ezartzen laguntzea, baina baita eraikitako parkea (bizitegikoa eta hirugarren sektorekoa) deskarbonizatzen laguntzea ere, kudeaketa eta laguntza integraleko eredu batekin eta biztanleria osoaren gaitasunera egokitutako finantza-tresna batekin.</p> <p><u>Adierazleak/magnitudeak</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Erakunde kudeatzailea eratzea ✓ Udalekin hitzarmenak egitea eta dagozkien hurbiltasun-bulegoak ezartzea: 25
<p>Eraginpeko eskumen-arloak/lotutako plan sektorialak:</p>
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050 ✓ Hiri Birgaitzeko eta Berroneratzeko Plan Estrategikoa ✓ Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2030 (ZTBP 2030)
<p>Laguntzak jasoko dituen sektorea edo sektoreak: Etorkizuneko OPENGELA Fundazioa</p>

Sailen aurrekontu-aurreikuspenak				
VII. Kapituluak	Urte bakoitzean eman beharreko zenbatekoak, guztira			
	2021	2022	2023	2024
	2.650.000	1.000.000	1.000.000	1.000.000
Identifikatutako beste ekarpen batzuk: Europako funtsak				
Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna eta hitzarmena				

Ardatz estrategikoa: Herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea, inor atzean gera ez dadin.				
3. helburu estrategikoa: GeoEuskadi EAEko geografia-informazioko lurralde-sistema gisa sendotzea				
